

MONARKIA



Sarrera

Monarkia gobernu-era bat da eta horrelakoetan kargu gorena bizi bitarteko izaten da. Normalean, oinordekoak bestrik gabe karguari heltzen dio eta monarka esaten zaio: errege edo erregina. Errege batek gobernatzen duen estatuak, erresuma izenez gain, monarkia izena ere jasotzen du.

Salbuespenezko kasu batzuetan, erregearen kargua ez da hereditarioa, hautazkoa baizik; dena den, kasu horietan guztietan, hautesleak zein hautatuak gizarte-talde oso mugatu batekoak izaten dira.

Monarkia hitzaren esanahia pertsona baten gobernu da, hau da, pertsona bakar bati dagokion kargua. Gainera, bizi bitarteko kargua izaten da.

Identitate nazionalaren sinbolotzat hartu izan da historian, eta, gainera, erlijioarekin oso lotuta egon da; izan ere, erregeek gobernatzeko eskubidea Jainkoaren borondatea zela esaten zuten.

Ohikoena da errege/erregina, nazio baten armadako kargu gorena ere izatea.

Gorago esan bezala, monarkia oso antzinako gobernu-sistema da. Gutxienez, Kristo baino 3000 urte lehenago hasi zen, Antzinako Egiptoko lehen faraoiekin. Hala ere, kasu hau berezia da, errege izateaz gain, faraoia jainkoen ordezkari eta jainkoa ere bera baitzen. Gobernu-modu honi Teokrazia esaten zaio.

Monarkia feudala

Erdi Aroan, Europan, monarkia feudala izeneko gizarte-sistema garatu zen; hau da, nekazariak jaunari zerbitzuak eskaini behar zizkion, lurra lantzearen truke. Garai horretan, erregearen boterea jaun feudalek mugatzen zuten, erregeak/erreginak botere gutxi baitzeukan.

Erregeek armada txikia zuten eta nobleen armada pribatuen beharra izaten zuten erresuma defendatzeko. Gainera, erregeak/erreginak ez zuen bere basailuen zergak kobratzeko behar adina botere. Horregatik guztiaerengatik, monarkek harreman pertsonalak eraiki behar izan zituzten, berarekiko leialtasuna bermatzeko, laguntza militarra jasotzeko eta erresumak babesteko. Trukean, monarkak feudo edo lur zati bat ematen zien pertsona horiei.

Nekazariak ere nobleen babesa bilatu zuten, baina horren ordainetan, nekazariak jopu bihurtu ziren, nobleentzat lan egin eta haien aginduak bete behar zituzten.

Hala eta guztiz ere, Behe Erdi Aroan, X-XVI mendeen artean, alegia, monarkiak geroz eta indar handiagoa lortzen joan ziren eta Europako errege-erreginek beren boterea indartu zuten, jaun feudalen gainetik.

MONARKIA

Monarkia Autoritarioa

Erdi Aroko monarkia feudal izateari utzi eta monarkia autoritarioa bihurtu zen, eta erregea, nobleziaren gaineratik, erakunde eta gorteen buru jarri zen. Dena den, nobleekin partekatzen zuten erregeek agintea, eta gorteen edo batzarren beharra zuten zergak onartzeko.

Horrela, Europako zenbait erregek beren nagusigoa inposatu zuten jaun feudalen gaineratik Erdi Aroaren amaieran. Horrez gain, nobleziaren, elizaren eta udalerrien boterea mugatu zuten beren estatusari eusteko, eta norberekeriaz gobernatu zuten. Monarkek zenbait neurri onartu zituzten: administrazio zentralizatua sortu zuten, errege-armada iraunkorrak eratu zituzten, Batzar ordezkarietaz gileen jarduera mugatu zuten eta zergak igo zizkieten herri xeheari.

Corteeek ibiltari izateari utzi zioten, Erdi Aroan ez bezala, eta erregeek bizileku finkoa hartu zuten, erresumako hiriburua izango zena.

Monarkia autoritarioaren eredu argia dira Errege-erregina katolikoak.

Monarkia Absolutua

XVII. mendean, monarkia absolutua bihurtu zen, hau da, erregea erresumako biztanle guztien gaineratik zegoen, denak zeuden haren zerbitzura eta erregeak agintzen zien. Erregeak bere esku zituen botere legegilea, betearazlea eta judiziala: legeak egiten eta aldarrikatzen zituen, gobernatu egiten zuen, eta epaileak aukeratzen zituen. Gobernatzeko, ministro, aholkulari eta idazkarien laguntza zuen; erregeak berak hautatzen zituen. Haien botereak jatorri jainkotiarra zuela zioten eta, beraz, lege guztien gaineratik zeudela. Boterea ezartzeko, erregeak funtzionario asko eta armada handia zituen ondoan.

Absolutismoaren eredu nagusia Frantziako Luis XIV.aren erregealdia izan zen. Espainian, haren biloba Filipe V.a errege izendatu zutenean, hark ere absolutismoaren ezaugarriak ezarri zituen.

Monarkia Demokratikoa

Monarkiak, gobernu-sistema gisa, gaur egun arte iraun du. Hala ere, Europako monarkiak demokratikoak dira orain, monarkia konstituzionalak edo parlamentarioak, alegia. Monarkia konstituzionaletan, erregeak herritarrek Konstituzioan ezarritako lege multzo baten esparruan erabiltzen du boterea. Monarkia parlamentarioetan, erregeak/erreginak parlamentuaren aurrean kontuak eman behar dituela ezartzen da, eta haren boterea, oso mugatua da.



MONARKIA

Bitartean Euskal Herrian ...

Euskal lurraldea hainbat dinastiak gobernatu izan dute garai eta testuinguru historiko ezberdinetan. Horrela, Erdi Aroan, esaterako, euskal lurraldeetan errege-kargua honako hauek izan zuten: Nafarroako erregeak, Gaztelako erregeak (Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban), Ingalaterrako edo Frantziako erregeak (Lapurdin eta Zuberoan).

Esan behar da Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko lurraldeak Nafarroako eta Iruñeako Erresumen testuinguruan osatu zirela. Gerora, Hegoaldeko euskal lurralde horietako erakundeak Gaztelako erresumen barruan kokatzen joan ziren, eta Ipar Euskal Herriko lurraldeak aldiz, Frantziako edo Ingalaterrako erresumen barruan.

Iruñeako erreinua Erdi Aroan eta feudalismo garaian sortu zen, hainbat familiak sozialki garrantzia hartu zutenean. IX. mendean, Aritza familiak erregetza ezartzea lortu zuen, eta gero, X. mendetik aurrera, Ximeno dinastiak gobernatu zuen, Nafarroan eta politika hedatzailea garatu zuen.

Erresumaren goren aldia Antso III.a Nagusiaren erregealdian (1000-1035) izan zen. Erregeak Aragoiko konderrriak, Gaztela eta Leongo zati bat bere Erresuman sartu zituen, ezkontza-elkarteei eta basailutza-harremanei esker. Antso III.ak Iberiar Penintsulako potentzia garrantzitsuena bilakatu zuen Erresuma, eta euskal hizkuntza hitz egiten zuten lurralde guztiak bere koroarean hartu zituen, Iparraldeko lurraldekoak barne.

Antso VI.a Jakituna erregeak (1134-1234) izena aldatu zion Erresumari eta handik aurrera Nafarroako Erresuma izan zen. Errege horren garaian erreinuaren osotasunari eutsi nahi izan zitzaion, baina piskanaka-piskanaka, aldameneko bi erresuma boteretsuak, Gaztela eta Aragoik, itzal egiten ari zitzaizkion eta XII. mendean amaieran, Gaztelak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa konkistatu zituen. Azkenik, 1512. urtean Nafarroako Erresumaren bukaera iritsi zen, Gaztelak inbaditu eta konkistatu zuenean.

Penintsulako gainontzeko lurraldeetan bezala, garai hoietan nobleek indar handia hartu zuten, beren armada eta gazteluak baitzituzten. Horrenbestez erregeek zailtasunak zituzten euskal lurraldeetan botereari eutsi eta beren lurraldeak babesteko. Euskal lurraldeetan boterea zuten goi-mailako nobleak, oro har, honako hauek ziren: jauna (Bizkaiko jauna), bizkondea (Lapurdin eta Zuberoan), kondea (Arabian) eta ahaide nagusiak (oinaztarrak eta ganboarrak).

XIV. mendean, Europako krisi-giroaren eta ekonomiaren porrotaren ondorioz, euskal nobleek aberastasuna eta boterea galdu zituzten, eta haien arteko borroka odoltsuak hasi ziren. Ahaidetasun-harremana zuten nobleak taldetan bildu ziren, beste noble batzuen aurka borrokatzeko. Ahaide Nagusien arteko borroka edo bando-gerrak bezala ezagutzen dugu horiek. Oinaztarrek eta ganboatarrek Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Lapurdin zuten boterea, eta agaramontar eta beaumontarrak Nafarroan. Gerrak okertuz eta zabalduz joan ziren eta XV. mende bukaeran, Gaztelako erregeak neurri gogorrak hartu zituen Ahaide Nagusien aurka sarraski haiek inbaditzeko. Nobleak garaitu zituenean, haien dorretxeak lepatzeko agindu zuen eta hainbat jauntxo erbesteratu zituen.

Aro Modernoan ere monarkia izan zen ohiko gobernu-modua Euskal Herrian, bai Iparraldeko lurraldeetan, bai Hegoaldekoetan ere. Hala ere, Hegoaldeko lurraldeek Gaztelako Koroarekin zuten harremanaren berezitasun garrantzitsu bat aipatu behar da: Foraltasuna.

Foruak lurraldeak gobernatzeko arau multzoak ziren, zeinak tokiko usadio eta ohituretan oinarrituta zeuden. Euskal lurraldeen kasuan, antzinako ohitura eta usadio hauek XIV eta XVI. mende bitartean idatziz erregistratu eta lege bihurtu ziren. Foru horiek zenbait eskubide onartzen zizkieten euskal lurraldeei: erregeari zergarik ez ordaintzeko eskubidea, soldadutzako salbuespena (bakoitzari zegokion lurraldea defendatzeko ez bazen) eta barne-antolamendua errespetatzea. Lurralde horietan erregeak foruak gordeko eta errespetatuko zituela zin egin behar zuen. Ordainetan, euskal lurraldeak erregearekin leial izaten jarraituko zuten.

Oinordetza Gerraren ondoren (1701-1714), lehenengo Borboiak, Filipe V.ak Espainiar Estatuko koroa eskuratu zuen. Euskaldunek gerran erakutsitako leialtasunagatik euskal foruak baino ez zituen mantendu. Hala ere, XIX. mendetik aurrera ezarriko zen Sistema Liberalarekin talka egingo zuen euskal Foru Erregimenak, eta azkenik, Karlistaldien ondoren, 1876. urtean foruak behin betiko abolituak izan ziren. Iparraldeko euskal lurraldeetan, Frantziako Iraultzan kendu zituzten foruak (1789-1790).

MONARKIA


Ezaugarriak



Agintea pertsona bakar baten eskuetan dago eta pertsona horrek errege edo erregina du izena.



Kargua jaraunslea da, hau da, oinordetza igarotzen da senide batetik bestera.



Errege-erreginen aginpideak hil arte edo beste batengan abdikatu arte irauten du. Historian zehar monarkia-agintea aldaketa handiak izan ditu.



Monarkia feudala Erdi Aroan garatzen da Europan eta sistema feudala barruan kokatzen da.




Monarkia feudalean erregeek nobleekin banatzen zuten boterea. Erregearen boterea agintari erlijioso nagusiekin adostua eta partekatua zen.




Monarkia feudalean erregeak kanpaina militarak zuzendu, zergak bildu eta epaile gisa lan egiten zuten.



Monarkia autoritarioan erregeek Erdi Aroan lortzen joandako boterea finkatu zuten eta estatu barruan boterearen jabe bakarra bihurtu ziren. Nobleziari eta Elizari boterea murriztetik eskuratu zuten.




Monarkia absolutuetan erregeek botere osoa dute, hau da, ez dago botere-banaketarik, eta erregea hiru botereen jabe da: judiziala, betearazlea eta legegilea.



Monarkia absolutuan erregearen autoritatea Jainkoarengandik zetorrela uste zen. Erregeak ez zuen inolako muga legalik eta bere borondatearen arabera gobernatzen zuen.



Erregearen pertsona eta Estatuak guztiz identifikatuta zeuden, bakarra balitz bezala. Normalean Errege nobleziako aholkulariez inguratzen zen.



Monarkia demokratikoetan monarka estatuko legeen mende dago. Hau da, erregea estatuko burua da, baina bere boterea guztiz mugatua dago.



Monarkia demokratikoetan legeak hauteskunderen bitartez aukeratutako parlamentuan egiten dira. Erregearen lana lege horiek berrestea da, hau da, ekintza formala baino ez da. Erregea, funtsean, batasun nazioanaren sinbola da.

DIKTADURA



Sarrera

Diktadura izeneko gobernu-sisteman pertsona batek dauka botere guztia, eta inolako kontrolik gabe gobernatzen du. Pertsona horri diktadore izena ematen zaio. Batzuetan talde bat izan daiteke, pertsona bakarra izan beharrean.

Diktadura-erregimenek ez dute iraupen zehatzik eta ahal izanik, diktadoreek agintaldia luzatu egiten dute haien nahi adina, kasu askotan karguan dagoen pertsona hil arte.

Diktaturak oso modu desberdinetan ezar daitezke, adibidez, iraultzen, gerra zibilen edo estatu-kolpeen ondorioz. Diktadore batzuk aginte demokratikoaren bitartez iristen dira boterera.

Diktadura garaietan, lege- eta konstituzio-berme guztiak eten egiten dira. Beraz, hauteskundeak debekatu eta komunikabideak kontrolatu eta zentsuratu egiten dira. Alderdi politikoak ere debekatzen dira, eta ezarritako boterearen aurka doan edozein ideologia edo mugimenduren aurka jokatzen du botereak. Ondorioz, sistema politiko horrek ez du herria ordezkatzen eta ez ditu haren eskubideak onartzen eta babesten.

Diktadura-mota ezberdinak daude:

* **Diktadura militarra**, kupula militar batek Estatuaren kontrol politikoa bereganatzen du. Estatu-kolpe edo gerra zibil baten bidez gerta daiteke.

* **Diktadura pertsonalista**. Horrela esaten zaie pertsona bakar baten lidergoan oinarritzen direnei. Diktadoreak bere irizpide subjektiboen arabera gobernatzen du, modu erabat autoritarioan.

* **Alderdi bakarreko diktaturak**. Sistema horietan, alderdi bakar batek ditu kargu politiko guztiak eta politikaren gaineko kontrola. Batzutan beste alderdi politiko batzuk egoten dira eta hauteskundeak ere antolatzen dira, baina baldintza demokratikoak betetzen ez dituztenak izaten dira.

Aro garaikideko lehen diktaturak XIX. mendean ezarri ziren Hego Amerikan. Estatu batzuetan, independentziaren ondoren boterea modu diktatorialean erabili zuten buruzagi politikoak edo militarrek agertu ziren. Buruzagi horien kasuan, bakoitzak bere buruari "Caudillo" izena eman zion. Hego Amerikan, XX. mendean, ia estatu guztiek jasan zuten diktadura militarren bat, hala nola, Argentinan, Txilen eta Kolonbian.

Bigarren Mundu Gerraren aurretik, diktadura faxistak oso esanguratsuak izan ziren. Adibidez, Alemanian Adolf Hitler-ek zuzendutako nazionalsozialismoa ezarri zen, Italian Benito Mussolini-ren eskutik faxismoa nagusitu zen eta Espainian Francisco Francoren diktadura luzea hasi zen, 3 urtetako gerra zibilaren ondoren. Bestalde, diktadura komunistak ere aipatu behar dira. Horien artean, Sobietar Batasuneko nabarmendu behar da. Berezikoki gogorra izan zen Iosif Stalinen agintaldian barrena. Gainera, azken hori diktadura oso luzea eta eragin handikoa izan zen munduko historian.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, diktadura-eredua Afrikan eta Asian zabandu zen, eta gaur egun kontinente horietan biltzen dira XXI. mendean oraindik bizirik dirauten diktadura gehientsuenak: Ekuatore Ginea (Teodoro Obiang Nguema), Ipar Korea (Kim Jong-um), Angola (Joao Lourenco), Azerbaijan (Ilham Aliyev).

DIKTADURA

Bitartean Euskal Herrian ...

Euskal lurraldeetako historian eragina izan zuten bi diktadura-aldi aipa ditzakegu: Primo de Riveraren diktadura eta diktadura frankista.

Primo de Riveraren diktadura

1920ko hamarkadaren hasieran, Espainia krisi politiko eta sozial batean murgilduta zegoen. Erreforma demokratizatzaileek porrot egin zuten eta gizartean gatazka sozial handia zegoen. Euskal eta katalan nazionalismoek indarra hartu zuten eta, gainera, Marokoko Gerrak porrot egin zuelako nahigabea piztu zen armadan.

Egoera horretan, Miguel Primo de Rivera jeneralak estatu kolpea eman zuen 1923ko irailean erregearen onespenez eta erregimen diktatoriala ezarri zuen. Diktadura honek 1930eko urtarrilean Primo de Riverak dimisioa eman zuen arte iraun zuen.

Diktaturak konstituzioa bertan behera utzi zuen, gorteak desegin zituen eta alderdi politikoak eta sindikatuak mugatu zituen. Hala ere, diktaturak babes handia izan zuen eta anarkisten eta komunisten oposizioa bakarrik izan zuen.

Diktaturaren aldeko jarrera Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere eman zen. Gainera, EAeko eta Nafarroako aldundien eginkizuna errespetatu egin zen. Are gehiago, 1925ean Euskal Kontzertu Ekonomiko berria sinatu zen, eta 1927an Nafarroako foru-hitzarmen berria. Gainera, gobernuak 1924an onartu zuen udal-estatutuak salbuespenak izan zituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako erakundeen berezitasunak errespetatu ziren.

Francoren diktadura

Francoren erregimena diktadura garai luzea izan zen. Erregimen politikoak Francisco Franco diktadoreak estatu burua hartu zuenetik, 1939ko uztailaren 18tik, 1975ean hil zen arte iraun zuen.

30eko hamarkadan Espainiako gizartea banaturik zegoen. Biztanleriaren sektore batek aldaketa ekonomiko eta sozial sakonak nahi zituen eta beste batzuk, aldiz, edozein erreformari uko egiten zioten.

Tentsio-giro horretan Francisco Franco jeneralak errepublikako gobernu legitimoaren aurkako estatu-kolpea eman zuen. Kolpearen porrotak 3 urte inguruko gerra zibila ekarri zuen (1936-1939) eta milaka pertsona hil ziren.

Gerra zibila irabazita, Francisco Francok diktadura ezarri zuen, eta oposiziogileen aurkako errepresio gogorra egon zen. Alderdi bakarra zegoen, Falange Española, beste edozein alderdi politiko edo sindikatu debekatuta zegoen. Eliza katolikoak eragin handia zuen politikan eta hezkuntzan, eta zentsuraren eta komunikabideen kontrola ezarri zituen.

Euskal lurraldeetan, aurrekoaz gain, diktadura frankistak beste ondorio batzuk ere izan zituen:

- Euskaldunen askatasun politiko eta sozialak murrizteaz gain, lehen urteetan gosea pairatu behar izan zuten lurralde guztian, eta errazionamendu-liburuxka ezarri zuten.
- Euskara debekatu zen, baita ikastolak ere. Orokorrean, euskal kulturarekin zerikusia zuen guztia debekatu zen.
- Aurreko urteetan Autonomia bat ezartzearen alde emandako pausoak bertan behera geratu ziren. Euskal probintzietan geratzen ziren foru-arauak ezabatu ziren eta bertako diputazioek foru maila galdu zuten. Kontzertu Ekonomikoa ezeztatu egin zen.
- Eusko Jaurlaritza erbesterratu egin zen, Jose Antonio Agirre lehendakari zela. 1940an Agirre lehendakariak dokumentu bat idatzi zuen Eusko Jaurlaritzaren jarraipena bermatzeko. 1944an Euskal Bloke Nazionala sortu zen Frantzian eta 1945ean hitzarmena sinatu zuten erbestean zeuden euskal erakunde politiko eta sindikatu guztiek.
- ETaren (Euskadi eta Askatasuna) sorrera 1959an. Euskal Herriaren independentziaren alde borrokatzeko sortutako erakunde armatua izan zen.
- Erregimenaren aurkako oposizioa: erregimenaren aurkako grebak eta protestak izan ziren urte horietan guztietan.

DIKTADURA

Ezaugarriak




Pertsona bakar batek edo talde txiki batek botere guztia du. Inolako muga legalik edo konstituzionalik gabe agintzen du.




Diktadoreak diktaduran agintzen duten pertsonak dira.



Diktadoreak Estatuaren hiru botereak kontrolatzen ditu (legegilea, betearazlea eta judiziala). Ez dago botere-banaketarik.



Estatua lider edo alderdi politiko bakararekin identifikatzen da.



Diktadorek ez dute iraupen zehatzik. Kasu gehienetan diktadorea hiltzen denean bukatzen dira.



Hauteskundeak, alderdi politikoak, sindikatuak eta edozein antolamendu edo herri-ordezkaritza debekatzen dira.



Oposizio-mota oro jazartzen da edozein bitarteko erabilita, tortura eta bahiketak barne.



Gobernuak komunikabideak kontrolatzen eta zentsuratzen ditu, eta horrek prentsa-askatasunaren ezabatzea dakar.



Estatuak etengabe ideologia ofizialaren propaganda egiten du.



Diktadura gobernu-sistema moderno bat da. Diktadura itxurako lehen gobernuak XIX. mendekoak dira.

ERREPUBLIKA



Sarrera

Errepublika gobernu-mota bat da; bertan, jendeak hautatzen ditu bere agintariak. Errepublikako buruzagi nagusi horri lehendakari esaten zaio, gobernuko buruari, berriz, lehen ministro. Gobernu errepublikanoa duten herrialde gehienetan, jendeak aukeratzen du gobernu-burua, presidentea edo lehendakaria esaterako. Beste pertsona batzuk ere hautatzen dituzte, legebiltzarkide izenekoak, legeak egiteko.

Monarkiaren eta errepublikaren arteko desberdintasun nagusia Estatuko buruzagitza da, baita postu hori pertsona batetik bestera igarotzeko sistema ere. Monarkien kasuan, estatu burua erregea da, eta postua biziartekoa eta oinordekoa da. Errepubliken kasuan, aldiz, Estatuko buruzagitza ordezkaritza politikoa du epe mugatu batez.

Errepublika batean, agintariak erantzukizuna dute boto-emileen aurrean. Jendeak ez badu gustuko agintarien gobernatzeko era, postutik bota ditzakete. Horrek esan nahi du botere-iturria herritarra dela. Dena dela, herrialde batzuetan ez dira betetzen ezaugarri horiek, hau da, agintariak ez dira hauteskunderen bitartez aukeratzen. Horiek diktadurak dira.

Errepublika eta demokrazia kontzeptuak ez dira nahasi behar. Errepublika gobernu-mota bat den bitartean, demokrazia herrialdeak gobernatzeko era edo sistema politikoa da, herritarren oinarritzko eskubideekiko errespetua jasotzen duena.

Nolanahi ere, ideal errepublikanoek ilustrazioaren pentsamendu demokratikoan dute jatorria, eta horregatik lotzen dugu Errepublika terminoa Demokraziarekin. Errepublikaren kontzeptua ideal demokratikoekin batera sortzen da, hau da, hauteskunde askeak, botere-banaketa eta legearen aurreko berdintasuna.

Errepublika gobernu-sistematik ohikoena da munduan gaur egun.

Gobernu errepublikarraren sistema antzinako Erroman aurki dezakegu, K.a. 509 urtean gizonezko pertsona libre ia guztiek botoa emateko eskubidea zeukaten. Izan ere, errepublika hitzaren jatorria latinezko *res publica* (gauza publikoa) da.

Demokraziaren kontzeptua bezala, errepublika modernoaren sorrera Ameriketako Estatu Batuen Independentzian (1783) eta Frantziako Iraultzan (1789) oinarritu daiteke. Une hartan, gobernu modua nagusia monarkia absolutua zen. 1788an Estatu Batuek lehen errepublika modernoaren ezarri zuten eta orduz geroztik herritarrek hautatutako lehendakari batek gidatzen du Estatu Batuetako gobernuak. Senatari eta legebiltzarkideez osatutako talde politikoen ordezkariek egiten dituzte legeak.

XIX. mendearren hasieran, Amerikan, espainiar kolonien independentziaren ondoren hainbat Errepublika sortu ziren, esate baterako, Mexiko, Uruguay, Argentina edo Txile.

I. Mundu Gerraren ondoren inperio handiak (Errusiar Inperioa, Alemaniar Inperioa, Austrohungariar Inperioa eta Otomandar Inperioa) desintegratu egin ziren, ondorioz, estatu errepublikarrak sorrera esanguratsu bat egon zen, hala nola, Irlanda, Polonia, Finlandia edo Txekoslovakia (gaur egungo Txekia eta Eslovakia).

ERREPUBLIKA

Bitartean Euskal Herrian ...

Bi errepublikar aldiek eragin diote euskal lurraldeei, hau da, Lehen Errepublikak eta Bigarren Errepublikak.

Lehen Errepublika (1873-1874)

1873ko otsailaren 11n, Amadeo I.a Savoiakoaren abdikazioaren ondoren, Espainiako Lehen Errepublika ezarri zen. Ezegonkortasun politiko eta sozial sakonak ezaugarritutako garaia izan zen, eta arazo larriei aurre egin behar izan zieten: Mugimendu kantonalistak, Kubako Gerra, Hirugarren Karlistaldia... Errepublikak lau presidente izan zituen: Figueras, Pi i Margall, Salmeron eta Castelar. Baina kaosa nagusi zen egoera hartan, 1874ko urtarrilean Pavia jeneralak estatu-kolpea eman zuen eta gorteak desegin zituen, Serrano jenerala gobernu buru ezarri.

Azkenik, 1874ko abenduan, beste jazaraldi batek, Martinez Campos jenerala buru zuenak, Borboiko monarkia berrezarri zuen eta Alfontso XII.a izendatu zuten errege.

Euskal lurraldeei dagokienez Lehen Errepublika nahiko oharkabean igaro zen. Diputazioek Gobernu errepublikanoa onartu zuten baina lurraldea liskar gogorrean murgilduta zegoen, Karlistaldi berri batek eztanda egin zuelako (1872-1876).

Bigarren Errepublika (1931-1939)

Espainiako Bigarren Errepublika 1931ko apirilaren 14an ezarri zen erregimen demokratikoa izan zen, alderdi errepublikanoek irabazi baitzituzten hauteskundeak eta Alfontso XIII.a erbesteratu egin zen. Errepublika 1939ko apirilaren 1ean bukatu zen, Franco jeneralaren diktadura ezarri zenean. 1931 eta 1933 artean, ezkerreko koalizio gobernu batek hainbat erreforma egin zituen langile eta sindikatuak laguntzeko, hezkuntza hobetu zen eskolak eraikiz eta irakasleak kontratatuz, eta nekazaritza erreforma bati ekin zitzaion, lurrik gabeko nekazariak berriz finkatzeko asmoz.

1933tik 1936ra arte, eskuindarrak jarri ziren gobernuan eta berehala gelditu zuten edozein erreforma aurrerakoi.

Azkenik, 1936an, Fronte Popularra ezkerreko koalizioak irabazi zituen hauteskundeak, baina estatu-kolpe baten ondorioz Gerra Zibila piztu zen. 1939an Bigarren Errepublikaren amaiera iritsi zen Franco diktadorea gobernu burura iritsi zenean.

Euskal lurraldeei dagokienez, Hego Euskal Herriko hiriburuek batipat pozez eta itxaropenez hartu zuten Espainiako Bigarren Errepublika. Aldaketa sozio-politiko sakonak nahi zituzten askok eta aldaketa asmorik ez zutenek ere errespetuz hartu zuten Errepublikaren etorrera.

Errepublika ezarri zen lehenengo hiria Eibar izan zen. Bai errepublikazaleek, sozialistek eta abertzaleek ere egoera demokratikora aldatzeko beharra ikusi zuten eta apirilaren 14a garai historiko baten hasieratzat hartu zuten.

Errepublika ezarri zenean, Konstituzio Errepublikarra aldarrikatu zen (1931), hainbat ekimen bideratuz: herriaren subiranotasuna, emakume eta gizonezkoentzako sufragio unibertsala, botereen banaketa, elizaren eta estatuaren banaketa eta autonomia estatutuak ezartzeko eskubidea.

Konstituzio horrek argi uzten zuen Espainia errepublika unitarioa eta bakarra zela, baina autonomia-estatutuen bidez eskualde autonomoak eratzeko aukera onartzen zuen. Dena den, Euskadi 1936aren amaiera arte (Gerra Zibil betean) ez zuen bere autonomia-estatutua lortu.

Lehen proiektua (Eusko Ikaskuntzak egina, 1931)

1931an Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) alkateen mugimendu bat jarri zuen martxan autonomia gauzatzeko, eta Eusko Ikaskuntzari eskatu zion estatutu proiektu bat prestatzeko. Proiektua zapuztu egin zen alderdi ezberdinek zuzenketak proposatu zituztenean.

Bigarren proiektua (Lizarrako proiektua, 1931)

EAJk eta karlistek sustatu zuten. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa zituen aplikazio-eremuak. Baina Espainiako parlamentuak ez zuen onartu estatutu hori eta konstituzioaren kontrakoa deklaratu zuen.

Hirugarren proiektua (Batzorde gestoreek egina, 1932)

Arabara, Bizkaia eta Gipuzkoara mugatu zen, Nafarroan ez baitzieten babes eman. 1933an proiektu berri batek Nafarroa estatututik kendu eta hiru probintzietako udalek onartu zuten. Hala ere, urte horretan hauteskunde orokorretan eskuineko gobernu kontserbadoreak irabazi zuen eta Estatutuaren onarpena geldiarazi zen.

Laugarren proiektua (1936)

Fronte Popularrek hauteskundeak irabazi zituztenean gobernuak estatutuaren gaia berpiztu zuen. Estatutoaren onarpena atzeratu zen Gerra Zibila hasi zelako. Azkenik, 1936ko urriaren 1ean Autonomia Estatutua onartu eta lehengo Lehendakaria aukeratu zuten, Jose Antonio Agirre.

ERREPUBLIKA


Ezaugarriak




Gobernu errepublikarrak balio demokratikoei lotuta daude.



Errepublika modernoa hauteskunde askeen, botere-banaketaren eta legearen aurreko berdintasunaren idealeekin batera sortzen da.



Monarkiaren aurkako erregimena da, hau da, estatuko agintari-kargua ez da oinordetzaren bidez eskuratzen.




Errepublika modu ez demokratikoan goberna daiteke. Diktadura dela esaten dugu orduan.



Konstituzio bakoitzean esaten da noiz artekoa izan daitekeen presidentearen agintaldia, eta pertsona bera zenbat legealditan izan daitekeen gobernuko buru, errepublikako buru edo lehen ministro.



Frantzian gertatzen den bezala Herriak zuzenean eta sufragio unibertsalez aukeratzen du lehendakaria.



Italian gertatzen den bezala, Herriak parlamenturako aukeratutako parlamentarioen artean gehiengo duen alderdiak izendatzen du lehendakaria.



Gaur egun, gobernu-sistematik ohikoena da munduan.

DEMOKRAZIA



Sarrera

Demokrazia herritarren parte-hartzea sustatzen duen gobernu-modu bat da. Herritarrek askatasunez aukeratzeko dituzte beren ordezkariak, hauteskunde bidez.

Demokrazia giza eskubideak, adierazpen-askatasuna eta aukera-berdintasuna errespetatzen dituen gobernu-sistema da. Era berean, bidezko sistema izatea eta gizartearen ongizate orokorra zaintzea du helburu.

Sistema demokratikoa balio etiko eta sozialen multzo batean oinarritzen da, hala nola askatasuna, errespetua, tolerantzia, elkartzasuna, berdintasuna, justizia eta parte-hartzea.

Estatu demokratikoak konstituzio batek arautzen ditu. Hau da, botere-banaketa ezartzen duen eta herritar guztien eskubideak eta askatasunak bermatzen dituen legea. Hiru demokrazia motak bereizten dira:

1. **Zeharkako demokrazia:** herritarrek hauteskunde libreen bidez aukeratzeko dituzte beren ordezkariak. Ordezkaritza politikokoek beraien artean eztabaidatu ostean erabakiak hartzen dituzte.

2. **Demokrazia parte-hartzailea:** demokrazia mota honetan herriak zuzenean erabakitzen du salbuespenezko egoeretan. Horretarako, hainbat adierazpide ditu:

- Erreferenduma. Herriak proposamen baten aurrean baieztatzeko eta ezezkoaren artean aukeratzeko du.
- Herriak lege, konstituzio edo itun baten azken onarpena ematen du edo ez du ematen.
- Herri-ekimena. Herritar talde batek lege berria edo jada indarrean dagoen bat deusezteko sustatzen du.
- Herritarren kargutik kentzea. Prozedura honen bidez, herritarrek hautaturiko politikari bat kargutik kentzeko, hauteskunde berriak baino lehen.

3. **Demokrazia zuzena:** erabakiak herri subiranoak hartzen ditu asanbladan. Ez dago herriaren ordezkariarik, baizik eta herriaren biltzarra agintaldiaren bozeramaile gisa betetzen duten ordezkariak.

Demokrazia antzinako Grezian jaio zen, K.a. V. mendean. Dena dela, Atenasko gizonezko libreen bakarrak bozka zezaketen; emakumeek, atzerritarrek eta esklaboek ez zeukaten botoa emateko eskubiderik. Ez ziren alderdi politikoak existitzen, karguak zozketatzen ziren eta kargu bakoitzerako pertsona talde bat aukeratzeko zen, horrela euren artean kontrolatzen zirelarik.

Erromatar Errepublikak, Atenasko demokraziaren nolabaiteko antza zuen. Hala ere, kasu honetan botere handia zuten bi kontsul aukeratzeko ziren. Kargu urtebetekoa zen eta ezin ziren berriro hautatuak izan.

Atenasekiko ezberdintasun nagusia da Erroman legeek batzarrak erabaten zituztela, eta batzar horietara denak joan zitezkeela: emakumeak, esklaboak eta atzerritarrek barne, eta denek eztabaidatu eta iritzia eman zezaketela. Botoa, hori bai, erromatar gizon adinduek bakarrik ematen zuten.

Erdi Aroan hedatuen zegoen gobernu-sistema monarkia izan bazen ere, gobernu demokratiko primitiboak aurki ditzakegu Irlandako zeltarren edo Islandiako bikingoen artean. XVIII. mendeko bi iraultza handik sortu zuten ezagutzen dugun demokrazia ordezkatzailerako sistema, hau da, Estatu Batuen independentzia eta Frantziako Iraultza. Gertaera historiko horiek demokrazia modernoaren oinarriak ezarri zituzten: sufragioa, botere-banaketa, herritarren parte-hartzea eta konstituzio bat lege-esparru gisa.

Orduetik aurrera, eta gaur egun arte, demokrazia, gobernu-sistema gisa, munduan zehar hedatu da eta gainera hobetu egin da. Izan ere, sufragioa adinez nagusi diren gizonei ez ezik, emakumeei eta arrazak ere erlijio-gutxiengoei ere zabaldu da sufragio unibertsala lortu arte.

DEMOKRAZIA

Bitartean Euskal Herrian ...

Euskal lurraldeetan sistema politiko askeagoak egon diren arren, demokraziako garai luzeena eta egonkorrena Francoren diktadura amaitu eta gero bizi izan da.

Francisco Franco diktadorea hil ondoren, 1975ean, Espainiako eta euskal lurraldeetako biztanleen gehiengoak diktaduratik ateratzeko nahia azaldu zuten eta diktaduraren aldekoek oztopo ugari jarrita ere, poliki-poliki gaur egungo demokraziarako bidea hartu zen.

Horrela, 1975ean, demokraziarako trantsizio-prozesua jarri zen martxan. Trantsizioa, 1977an lehen hauteskunde libreak egin zirenean eta Espainiako Konstituzioaren (1978ko abendua) onarpenaren arteko garai historikoa da.


Aldaketa hori oso testuinguru konplexu batean gertatu zen eta gizarte-mugimendu handiak izan ziren frankismoaren kontra: poliziak indarkeria erabili zuen manifestazioetan, greba ugari egin ziren ...

Adolfo Suarezek hauteskunde orokorretara deitu zuen 1977an eta, berrogei urteko diktaduraren ondorengo lehen hauteskunde demokratikoak izan ziren hauek. Euskadin, EAJ izan zen boto gehien eskuratu zituen alderdi politikoa eta Nafarroan aldiz, UCD.

1978. urtean Eusko Kontseilu Nagusia sortu zen (autonomia-erkidegoa sortu aurreko erakundea) eta 1980 arte egon zen indarrean.

1979ko urriaren 25ean Gernikako Estatutua onartu zen. Horrela, Euskadik bere autogobernua gauzatu zezakeen Espainiako Konstituzioaren arabera bidezko eskubidea baitzen. Hiru euskal lurralde komunitate historikotzat hartu eta erabateko autonomia-erkidego bihurtzeko aukera onartu zitzaion, Euskal Autonomia Erkidegoa izenarekin. Ezinezkoa izan zen Nafarroa barne hartuko zuen proiektua aurrera eramatean, Nafarroako alderdi politiko gehienak aurka agertu baitziren.

Azkenik, 1980ko martxoan izan ziren lehen euskal hauteskunde autonomikoak. Orduan eratu zen Eusko Jaurlaritzako legegintzaldia Carlos Garaikotxea lehendakaria buru zela. Nafarroan, aldiz, lehen hauteskunde autonomikoak 1979an izan ziren eta UCD alderdiko Jaime Ignacio del Burgo presidente hautatu zuten.



DEMOKRAZIA

Ezaugarriak



Boterea herriaren esku dago.



Sistema demokratikoa da gobernu-erarik bidezkoena.



Guztion ongia bilatzen du, gizartearen maila guztiek eskubide eta betebeharrak izan ditzaten.



Demokrazia herritarren parte-hartzea sustatzen duen gobernu-modu bat da.



Demokraziak iritzi eta erakunde politikoen aniztasuna sustatzen du.



Demokraziak giza eskubideak, adierazpen-askatasuna eta aukera-berdintasuna errespetatzen ditu.



Estatu demokratikoak konstituzio batek arautzen ditu.




Herritarrek agintean parte hartzeko ordezkaririk bozkatzeko herri, autonomia, estatu edo Europako mailako hauteskundeetan.



Agintari politikoek agintaldi mugatua dute, eta konstituzio-legeari mende daude.



Botereen banaketa dago (legegilea, judiziala eta betearazlea) agintekeria saihesteko.



VI aC

Oso sistema zaharra da, eta hobetzen joan da, gutxiengo batek parte hartzen duenetik (adibidez, antzinako Atenasen) gaur egun adin nagusiko herritar guztiek parte hartzen dutenera arte.

GLOSATEGIA

ABOLIZIOA. Kriminalizatu diren jokabideei ezartzen zaizkien zigorrak (adibidez, heriotza zigorra) eta bidegabetzat edo zentzugabetzat hartzen diren legeztatutako egoerak (adibidez, esklabotza) bertan behera uztea da. Legezkatzat hartzen zena lege kanpo uzten da.

AHAIDE NAGUSI. Erdi Aroko handiki edo jauntxoak ziren, Euskal Herriko aitoren semeen maila goreneko leinuak... Odol berekoak, familia arteko lotura dutenak, senitartekoak. Euskal lurraldeetan, leinu edo familia bateko anaiak, ilobak, lehengusuak... Ahaide Nagusiaren babesean biltzen ziren. Hasieran, lurralde eta artaldean jabe ziren, eta, gero, eliza batzuen zaindari. Ondoren, hainbat ola eta errotaren jabe egin ziren. Gero eta aberastasun gehiagoren jabe egin ziren, eta etxeak dorre bihurtu zituzten.

AMERIKETAKO ESTATU BATUEN INDEPENDENTZIA GERRA. (1775-1783) Britainia Handiak Ipar Amerikan zituen hamahiru Kolonien eta Britainia Handiaren arteko gerra izan zen. Independentzia-gerra baino gehiago, benetako iraultza izan zen. Horren ondorioz herritarren eskubide-berdintasuna legearen aurrean, botere-banaketa eta gizakiaren eskubideen errespetua oinarri zituen munduko lehenengo konstituzioa sortu zen.

BASAILUTZA. Legez, ohituraz edo akordioz pertsona bat, basailu esaten ziotena alegia, zerbitzu batzuen truke jaun baten babes eta menpean jartzen zen. Bereziki European nagusitu zen Erdi Aroan, feudalismoa izeneko sistema sozioekonomikoan.

BATZARRAK. Bilerak; bereziki, erakunde batek bere arazoan inguruan hitz egiteko eta erabakiak hartzeko aldika egiten duena; horrelako bileran esku hartzen duten lagun-multzoa.

BIGARREN MUNDU GERRA. 1939tik 1945era arte gertatu zen gerra armatu handia izan zen. 70 herrialdek baino gehiagok hartu zuten parte. Estatuak bi aliantza militarretan banatu ziren. Alde batetik, Aliatuak (Erresuma Batua, Frantzia, Estatu Batuak eta Sobietar Batasun, besteak beste) eta bestaldetik, Ardatzeko potentziak (Alemania, Japoniar Inperioa eta Italia, besteak beste). Historiako gerrarik handiena izan zen, eta beste edozein gerratan baino jende gehiago hil zen.

BOTERE-BANAKETA. Estatu demokratikoak antolatzeko modua da. Funtzio legegilea, exekutiboa eta judiziala independenteak dira eta elkarren artean kontrolatzen eta mugatzen diren erakundeen bidez gauzatzen dira. Horrela eragotzi egiten da boterea gehiegikeriaz erabiltzea. Hiru botere-mota daude.

Botere exekutiboa (Gobernua): Estatuak kudeatzen du.

Botere legegilea (Legebiltzarra): Legeak egiten ditu.

Botere judiziala (Auzitegiak): Konstituzioa eta legeak betetzen direla zaintzen dute.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Espainiako autonomia erkidego bat da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurralde historikoek osatzen dute eta 1979. urtean sortu zen. Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarra dira antolamendu politikoaren organo gorenak eta Gernikako Estatutua da erkidegoa arautzen duen lege gorena.

EUSKO ALDERDI JERTZALE (EAJ). Euskal Herriko alderdi politiko abertzale eta kristau demokrata da. Alderdiko kideei jeltzale esaten diete, eta zaleei eta haren ideologiari, jeltzale.

EUSKO JAURLARITZA. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde administratibo eta betearazle gorena da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan du eskumena. Eusko Jaurlaritzako egoitza nagusia Gasteizen dago eta Jaurlaritzaren burua lehendakaria da.

ERRESUMA. Errege/erregina baten agindupeko lurraldea da, baita sistema politikoetatik monarkia duen herrialdea ere. Erresuma ez da nahitaez estatu burujabea, estatu baten zatia ere izan baitaiteke, inperio batena, esaterako.

FAXISMO. Faxismoa eskuin muturreko gobernu-mota da, herrialdeko botere gehiena edo osoa agintari bakar baten esku uzten duena. Historikoki, XX. mendean, hiru estatu faxista handi izan ziren: Benito Mussoliniren Italia, Adolf Hitlerren Alemania nazia eta Francisco Francoren Espainia.

FEUDALISMOA. Erdi Aroko European indarrean egon zen sistema politiko, ekonomiko eta soziala izan zen, gutxi gorabehera IX. eta XV. mendeen artean iraun zuena. Sistema hau luraren jabetzan oinarrituta zegoen: erreinuko lur guztia Erregearena zen, baina errege edo enperadoreak lurra ematen zien bere jarraitzaileek garrantzitsueni (jaun edo noblei edota Elizako agintariei), gerrarako zerbitzu militarrek eskaintzearen truke edota zergak eta tributuoak ematearen truke.

FORU. Leku edo lurralde bateko usadio eta ohiturak biltzen eta finkatzen dituzten arau idatziak dira Foruak, baita erregeak edo jaunak hiribildua osatzen zuen komunitate bati emandako arau, pribilegio, eskubide eta betebeharrak ere.

FRONTE POPULAR. Espainiako II. Errepublika garaian, 1936ko hauteskundeetan ezkerreko alderdiek Fronte Popularra izeneko koalizioa osatu zuten.

FRANCISCO SERRANO. (1810-1885). Espainiar militar eta politikaria izan zen, erresumako erregeorde, Ministroen Kontseiluko presidentea eta lehen Errepublikako azken presidentea izan zena.

FRANCISCO FRANCO BAHAMONDE. (Ferrol, A Coruña, 1892ko abenduaren 4a – Madril, 1975eko azaroaren 20a) Espainiar militar eta diktadorea izan zen. Espainiako Bigarren Errepublikaren gobernu demokratikoaren aurka estatu-kolpe militarra jo eta Espainiako estatu-buru izan zen 1939tik eta 1975 arte, frankismoa deritzon aldirian. Francoren jarraitzaileei frankistak esaten zaie.

FRANTZIAKO IRAULTZA. Aro Garaikideari ateak zabaldu zizkion gertakizuna izan zen. 1789-1799 urteen bitartean Frantziako gertatu zen prozesu gatazkatsu eta konplikatuaren poderioz, Antzinako Erregimena ezabatu egin zen eta arlo politiko eta sozialean aldaketa sakonak gertatu ziren. Ilustrazioko pentsamenduan oinarrituta, klase-pribilegioak, errepublikanismoa eta herritarren eskubideak aldarrikatu eta bultzatu zituzten iraultzaileek. Frantziako Iraultzaren eragin politikoa eta ideologikoa Europa osoan barrena zabaldu zen.

GIZA ESKUBIDEAK. Pertsona guztiok, gizaki izateagatik, ditugun eskubideak dira. Giza eskubideen oinarria nagusia hau da: pertsona guztiak berdinak gara. Beraz, eskubide berberak izan behar ditugu, edozein izan arren gure sexua, adina, nazionalitatea, jatorria, erlijioa, hizkuntza, sexu-joera, posizio ekonomikoa edo bestelako ezaugarrien bat.

GORTE. Erregearekin batera edo haren inguruan bizi diren senide, aholkulari eta beste handikiak.

ILUSTRAZIOA. Argien Garaia edo Ilustrazioa XVII. eta XVIII. mendeetako kultura higikundeak izan zen. Arrazoimena hartzen zuen gizonaren funts eta oinarritzat.

JAZARRI (JAZARPENA). Arraza, erlijio edo ideologia politiko jakin bateko pertsona-talde bat isilarazteko eta erasotzeko ekintza.

GLOSATEGIA

JOPUTZA. Legez, ohituraz edo akordioz pertsona bat, jaun izeneko beste pertsona baten lurretan zenbait zerbitzu eta ordainsarien truke bizi eta lan egiten dueneko egoera da. Pertsona horri jopu esaten zaio eta bereziki Europan nagusitu zen Erdi Aroan, feudalismoa deritzon sistema sozioekonomikoan. Basailua ez bezala, jopua ez zen askea, jabearen menpekotasun osoan zegoen, esklabotzaren antzeko baldintzetan.

KANTONALISMO. XIX. eta XX. mende hasieran Espainian garatu zen korrante politikoa izan zen. Horren helburua estatuaren egitura behetik gora federalki osatzea zen, oso autonomia handiko kantoien bidez.

KARLISTALDI EDO GERRA KARLISTA. Karlistaldiak edo gerra karlistak —karlistada izenez ere ezagunak— Hego Euskal Herrian eta Espainian XIX. mendean gertatutako gerra zibilak izan ziren, eta hegoaldeko euskal lurraldeak izan ziren gune nagusi.

KOMUNISMO. Klase sozialik gabeko gizarte baten eraketa sustatzen duen mugimendu politikoa da. Ekoizpen bideak jabetza komunekoak dira eta jabetza pribatua abolitzen da. Praktikan, herrialde komunistak alderdi bakar baten (Alderdi Komunista) gobernuan oinarritutako diktadurak dira, eta alderdi horretako buruzagiek botere osoz gobernatzen dute.

LEHEN MUNDU GERRA. XX. mendearen hasieran (1914 eta 1918 bitartean) gertatu zen gerra handia izan zen; batez ere Europan gertatu zen, baina munduan garai hartan zeuden potentzia handi ia guztiek eta beste herrialde txiki askok ere parte hartu zuten.

MIGUEL PRIMO DE RIVERA Y ORBANEJA. (Jerez de la Frontera, 1870eko urtarrilaren 8a - Paris, 1930eko martxoaren 16a) Militar, politikari eta diktadore espainiarra izan zen. 1923an, armadaren eta alderdi kontserbadoreen laguntzarekin, estatu kolpea eman zuen diktadura ezarriz. Primo de Rivera boterean mantendu zen 1930ean dimisioa eman zuen arte.

PRONUNZIAMENDU. Jazarraldi edo altxadia militar-matxinada mota bat da, Espainian, Hispanoamerikan eta Portugalen XIX. eta XX. mendeetan sarritan eman zena.

SUFRAGIO UNIBERTSALA. Adinez nagusiak diren hiritar guztiei botoa emateko eskubidea ematen dien hauteskunde-sistema da. Hau da, ez zaio botoa ukatzen adinez nagusia den herritar bati, edozein dela ere bere egoera ekonomikoa, sexua, arraza edo erlijioa.

TEOKRAZIA. Gobernu era honetan buruzagi politikoak eta buruzagi erlijiosoak bat datoz eta bertako erlijioak gobernuaren politikan eragin handia du; normalean gobernuak Jainkoaren izenean agintzen duela aldarrikatzen du.

TRANTSIZIOA. Espainiako trantsizioa Francisco Franco diktadorea 1975ean hil zenetik 1977an lehen hauteskunde libreak egin ziren arteko garai historikoa da; hau da, diktadura batetik demokrazia parlamentariarako aldaketa.

BALIABIDEAK

- 3. D.B.H. **Gizarte Zientziak. Estauen antolamendu politikoa.** Anakel editorial 2010

- Allica, Irene. **II. Republika Euskal Herrian.** Calameo

- Beobide, H., & Rodríguez, J. (2004). **Gizarte Zientziak : 2 DBH Lehen zikloa: 1.-Zenbat gara..., 2.- Ba ote nahiko elikagai?, 3.- Herriaren gobernu...** / Proiektuaren koordinatzailea: Harri Beobide; Egileak: Harri beobide, Joseba Rodriguez. Donostia : Elkar : Gipuzkoako Ikastolen elkarte.

- **Demokrazia.** Txikipedia.

- **Errepublika.** Txikipedia.

- **Gizapedia.**

- **Gobernu motak: presidentzialismoa, parlamentarismoa.** Lur Entziklopedia Tematikoa.

- Gorriz, Borja (2012) **Gobernu motak.**

- Gorrotxategi, Aitor (2012). **Gobernu motak.**

- **Monarkia absolutua.** Txikipedia.

- **Monarkia konstituzionala.** Txikipedia.